

# **HERRI-ADMINISTRAZIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO IRIZPIDEAK**

## **IV. PLANGINTZALDIA (2008-2012)**

2008KO URTARRILA



## Hitzaurrea

Euskara normalizatzeko ahalegin handiak egin dira azken hogeita bost urte hauetan, eta horiei esker, euskarak esparru berriak irabazi ditu gizartean, komunikabideetan, merkataritzan, lan munduan, eta, guri dagokigunez, baita Administrazio Publikoan ere.

Aurreko plangintzaldietan, administrazioari langileak euskalduntzeari eman genion lehentasuna; Administrazioak eta langileek beraiek egindako esfortzuari esker, langile askok hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute urte hauetan; esan daiteke, beraz, ezagutzaren aldetik, inoiz ez bezala gaudela prestatuta, hein handi batean, euskaraz lan egiteko. Zoritxarrez, euskararen ezagupenaren hazkunde horrek ez du isla bera izan eguneroko lanean; akaso, perspektiba lausotu egin zaigu, eta bitarteko behar duena, alegia ezagutza, batzuetan helburu bilakatu dugu. Egia da ezagutza ezinbestekoa dela hizkuntza erabili ahal izateko, baina heldu da unea erabilerarako beste urrats batzuk emateko; azken batean, erabilera da euskararen etorkizunaren giltzarria.

Ezagutzak ez dakar, berez eta besterik gabe, hizkuntzaren erabilera; normala da, gainera, halako desoreka bat egotea. Baina gero eta elebidunagoa den gizarte batean bizi gara, eta horrek Administrazioari eskatzen dio herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta etengabe aukera berriak eskaintzen egotea, herritarrari inolako deserosotasunik eragin gabe. Horrenbestez, euskara ere Administrazioari lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana. Eta horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horrez gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiteko lehen urratsak emateko, baita ere gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz era normalean lanean hasteko: euskarak hiztunak behar ditu, ez salbatzaileak.

IV. Plangintzaldia abian da. Herri-administrazio guztiek plana zehaztu behar dute, eta, hala egin dugu dagoeneko Eusko Jaurlaritzan; ez edozein modutan, ordea: oso kontuan hartu ditugu III. Plangintzaldiaren inguruan herri-administrazioek proposatutako etorkizunerako lan-ildoak. Bada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Eusko Jaurlaritzako plan horren irizpide nagusiak bildu eta gainerako herri-administrazioen esku jarri ditu, beharrezko egokitzapen guztiak eginda, lagungarri izango direlakoan erabilera planak diseinatzeko orduan.

Seguru nago herri-administrazioek euren egoeraren arabera baliagarri zaizkien neurrian kontuan hartuko dituztela gomendio hauek, eta ez hori bakarrik, seguru nago erabilera plan eraginkorrek jarriko direla martxan han eta hemen. Bide luzea daukagu egiteko; argi-ilunak izango dira, etsiuneak, baina aurrera egin behar da, sendo eta zalantzarik gabe; eta bide horretan laguntzeko beti izango da aldamenean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

**PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO**  
*Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

# Aurkibidea

1. SARRERA .....	7
2. IV. PLANGINTZALDIAREN AURREKARIAK .....	8
2.1. III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena: datu batzuk .....	9
2.2. III. Plangintzaldiaren gaineko beste zenbait gogoeta .....	10
3. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO IRIZPIDE NAGUSIAK	
IV. PLANGINTZALDIAN .....	11
3.1. Eragin-eremua .....	11
3.2. Eragin-epea .....	11
3.3. Xede-nagusia: euskara ere Administrazioaren ohiko hizkuntza .....	11
3.4. IV. Plangintzaldiaren oinarriak eta parte-hartzaileak .....	12
3.5. Derrigortasun datak .....	13
3.6. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak, oinarri eta helmuga .....	14
3.7. Inoiz baino langile gehiagok hartuko du parte erabilera planetan .....	16
3.8. Langileen lan-jardunen izaera komunikatiboa .....	17
3.9. Berriazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntzaren garrantzia .....	18
3.10. Antolakuntza egiturak, erabilera planen kudeaketa eta jarraipena ziurtatzeko .....	19
3.11. Metodologia erraza eta malgua .....	20
3.12. Langileak motibatu eta sentsibilizatu beharra: “pixka bat es mucho” .....	20
4. AMAIERA .....	21
A ERANSKINA: Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.	
Erabilitako metodologia .....	25
B ERANSKINA: Administrazio-kontratuetakoko hizkuntza-baldintzak .....	35



## Sarrera

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990an jarri zen martxan, eta orain arte, hiru izan dira: lehenengo bietan, Administrazioeko langileak euskalduntzeari eta alfabetatzeari eman zitzaion lehentasuna, alegia, euskaren ezagutza sendotzeari; hirugarrenean (2003-2007), berriz, Administrazioan euskara erabiltzeari eman nahi izan zaio garrantzirik handiena. Bada, 2008an hasi eta 2012ko abenduan amaituko den IV. Plangintzaldi honetan ere, orain arteko bidea sendotu nahi da, eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, **erabilera** izango da erronka nagusia; euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatu nahi dugu, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. Horretarako, langile gehiago sartuko dira erabilera planetan, eta motibazioaren bidez, metodologia erraza eta malgua erabilita, eta beharrezko baliabideak jarritz, hizkuntzen erabileran berdintasunerantz joko da: euskaraz eta gaztelaniaz jardutera; hori bai, euskarazko sortze lana areagotuta.

86/1997 Dekretuak 19. artikuluan ezartzen du Euskal herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planak onartuko dituztela plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, eta horrelakorik onartua duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak. Dekretuak hori ezartzen badu ere, III. Plangintzaldiaren balorazio txostenak erakutsi du herri-administrazioen erdiak gutxi gorabehera egin duela euskararen erabilera plan egituratu bat (%48). Horrek ez du esan nahi erabilera planik abian jarri ez duen erakundeak euskararen erabilera normalizatzearen aldeko saiorik egin ez duenik, ez eta gutxiago ere: urte hauetan lanpostuetako hizkuntza eskakizunak ezarri dituzte, langileak euskalduntzeaz arduratu dira, euskararen presentziari bere tokia aitortu diote...

Baina hori guztiori inolako plangintzatarara lotu gabe egin denez, finkatu gabe dituzte helburuak eta horiek neurtzeko adierazleak ez dira jarri; ondorioz, ekintzak modu isolatuan garatu dira.

Gainera, erabilera planak onartu ondoren, argi dago horien kudeaketa eta, batez ere, jarraipena egin behar dela, emankorrak izan daitezten; nolana ere, III. Plangintzaldiko datuek erakutsi dute udalen kasuan, esate baterako, erabilera plana egin dutenetatik gutxi gorabehera erdiek eusten diotela planari martxan. Mankomunitateei erreparatzen bazaie, ostera, %10ak soilik; beraz, lanik zailena eginda ere –plana diseinatzea–, ez zaio beti behar bezalako etekinik atera.

Egoera horren aurrean, III. Plangintzaldiko balorazioa gauzatzeko egin ziren lan taldeetan maiz azpimarratu zen erabilera planak administrazio guztietara hedatzearen garrantzia: handi zein txikietara; eta horretaz gainera, jarraipena ematearena. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bat dator iritzi horrekin: euskara Administrazioako lan hizkuntza “normala” bilakatzeko, erabilera plana onartu beharko litzateke herri-administrazio guztietan, eta ez hori bakarrik: onartu ostean, garatu eta **erabili** egiten dela bermatu beharko litzateke; alegia, lana euskaraz ere egiten dela.

Hori horrela, eta Dekretuak esaten duena betez, Eusko Jaurlaritzak prestatu du dagoeneko bere erabilera plana; hor, planarekin batera, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak eta proposatutako metodologiaren ardatz nagusiak jasotzen dira eranskin modura. Eta, hain zuzen ere, dokumentu hori garatzeko jarraitu diren irizpide eta oinarriak nahi ditugu adierazi eta herri-administrazio guztiei aurkeztu, tokian tokiko erabilera planak abian jartzen laguntzeko. Azken batean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zereginen artean dago arlo horretan jarduteko irizpideak eta gomendioak ematea gainerako herri-administrazioei (otsailaren 14ko 25/2006 Dekretua, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duena, 14.art.).

.../... Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zeregin hauek izango ditu:

- a) a) Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak emanda Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bete beharko dituzten arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.

Zeresanik ez, herri-administrazio bakoitzak aukeratuko du gomendio edo irizpide horiek jarraitu edo ez, eta jarraitzekotan ere, ondoen irizten dion eran egokitu ahal izango ditu bere egoerara; hortaz, malgutasuna izango da nagusi, baina betiere 86/1997 Dekretuan ezarritako oinarrien arabera.

## 2

### IV. Plangintzaldiaren aurrekariak

IV. Plangintzaldiren ildo nagusiez hobeto jabetzeko, beharrezkoa da, labur-labur bada ere, aurreko plangintzaldiari begiratu bat ematea: batetik, III. Plangintzaldiko balorazio txostenari; eta, bestetik, horren harira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak berak egindako gogoetei.

## 2.1. III. Plangintzaldia (2003-2007) balorazio txostena: datu batzuk

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak III. Plangintzaldiaren balorazio txostena egin du 2008ko urtarrilean. Bertan datu kuantitatiboak bildu dira alde batetik, eta, bestetik, azterketa kualitatiboa egin da. Azterketa kualitatibo horretan, hainbat lan taldek hartu du parte, besteak beste: arduradun politikoez osatutakoak, normalkuntzako teknikariak eta planen eraginpeko langileenak. Horren guztiaren ondorioz, AMIA matrizea osatu da eta etorkizunerako lan-ildoak proposatu dira.

Hona hemen balorazioa hitz bitan:

- Datu kuantitatibo esanguratsuenak:
  - ◊ Euskararen ezagutza handia da herri-administrazioetan: langileen %57,43k hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu du (herri-administrazio guztiak aintzat hartuta, eta une honetan ari den langile oro derrigortasun data ezarria izan edo ez kontuan hartu gabe); hala eta guztiz ere, datuek gordintasun osoz erakusten dute euskaraz lan egiteko gaitasuna duen langileria horrek gaztelaniaz jarduten duela gehien-gehienetan; alegia, gaztelania dela Administrazioako sortze hizkuntza nagusia.
  - ◊ Gainerako datu kuantitatiboak orokorrean hartuta, ikusten da, batetik, herri-administrazioen erdiek daukatela martxan erabilera plana, eta, bestetik, nahiko ondo bermatzen dela euskararen presentzia kanpora begirako jardunetan, batez ere idatzizkoan: hizkuntza paisaia (errotulazioa, papeleria), kanpo proiektzioa (argitalpenak, web-ak, iragarpenak) eta hizkuntza irizpideen arloan (herritarrekikoak, beste administrazioekikoak, itzulpen politika, jendaurreko ekitaldiak, iragarpenak...).

Hortaz, badirudi Administrazioan ezagutza maila handia dela, eta, gainera, presentzia ere baduela, gutxienez kanpora begira eta idatziz; baina, erne, zeren hedapen elebidun hori itzulpenek bermatzen dute hein handi batean.

- Datu kualitatiboei erreparatzen bazaie, berriz, aipagarriak dira III. Plangintzaldiak izan dituen indar-gune eta aukerak: euskal hiztunen kopurua gora doa, euskararen presentzia bermatuta dago neurri batean, gero eta hobeto onartzen zaio herritarrari hizkuntza aukeratzeko eskubidea... Baina, hala ere, mehatxu eta ahulezia dezente agertu dira; besteen artean, ondoko hauek: Aebemet metodologia malgutu beharra, egoera desberdinetara hobeto egokitzeko; erabilerrari buruzko hizkuntza irizpideak finkatu gabe izatea erakunde askotan; erabilera planen jarraipen maila hobetu beharra; euskararen erabilera normalizatzeko erabiltzen den diskurtsoa zaharkitua egotea edota komunikazio plan orokorrik ez egotea.

Eta, hain zuzen ere, gabezia horiei aurre egiteko, ondoko lan-ildo hauek proposatu zituzten lan taldeek IV. Plangintzaldirako:

- Euskararen erabilera sustatzeko komunikazio plan orokorraren beharra.
- Ezagutza erabilerara bideratzeko mekanismoak ezartzea.
- Hizkuntza eskakizunei eta egiaztatze sistemari buruzko gogoeta egin beharra.
- 86/1997 Dekretuaren azterketa eta egokitzapena.
- Erakundeen arteko elkarlan eta koordinaziorako harreman sare egonkorrak gorpuztu beharra.
- Euskararen erabilerarako metodologia eta tresnak, bereziki, jarraipena egiteko tresnak.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eginkizun eta helburuen gaineko hausnarke-ta egin beharra.

## 2.2. III. Plangintzaldiaren gaineko beste zenbait gogoeta

Aurreko plangintzaldian hitzun kopuruaren trinkotasunari eman zaio lehentasun osoa; alegia, euskaldunak elkarrengana biltzeari: ustez administrazio-atal batean euskaldunak batuta, horrek berak euskaraz lan egitea ekarriko zuela ezinbestean. Eta horrek beharbada horrela izan beharko luke, baina praktikan gertatu dena da atal elebidunak sortu direla ezagutza ardatz hartuta, eta erabileran uste baino gutxiago egin dela aurrera, ez delako bestelako mekanismorik martxan jarri, ezagutza duten langile horiek euskara erabil dezaten lan hizkuntza bezala.

Bestalde, atalaren izaerak ere zeresan handia izan du derrigortasun datak ezarri eta erabilera planetan zein langile sartu erabakitzeko unean; horiek horrela izanik, jendaurreko eta gizarte izaerako atalek izan dute lehentasun osoa, kontuan izan gabe langile batek izan dezakeela funtzioen bat edo beste lehentasunezkoa, nahiz eta jendaurrean edo atal elebidun batean ez egon.

Ondorioz, euskararen ezagutza handia da atal elebidunetan eta dezentekoa orokorrean, baina erabilera eskasa da batean zein bestean, salbuespenak salbuespen.

Beraz, balorazioan proposatutako lan-ildo horietatik eta aurreko planaren gaineko gogoetetatik abiatuta gauzatu da *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana*. Eta, lehen esan bezala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere eginkizuna betez, beste herri-administrazioen esku jartzen ditu plan berriak marrazteko erabili daitezkeen irizpide nagusiak.

## 3

## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Irizpide Nagusiak IV. Plangintzaldian

Aurrekoan esan den bezala, Kultura Sailaren Egitura Dekretuko 14. artikulua ezartzen du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokiola Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak emanda Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bete beharko dituzten arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.

Horretan oinarrituta, hona hemen, bada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Plangintzaldi berri honetarako proposatzen dituen irizpide nagusiak.

### 3.1. IV. Plangintzaldiaren eragin-eremua

86/1997 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako esparrua.

### 3.2. Eragin-epea

Erabilera Planaren eragin-aldia 2008ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2012ko abenduaren 31n bukatuko da.

### 3.3. Xede nagusia: euskara ere Administrazioaren ohiko hizkuntza

Orain dela hamazazpi urte ez zen guztiz “normala” euskara jakin beharra aldarrikatzea Administrazioan lan egiteko: zeresan eta tirabira franko sortzen zituen horrek; gaur egun, ostera, jakin-behar hori normaltasun handiagoz onartzen da. Horri esker, herri-administrazioetako langileen hizkuntza gaitasuna erruz hobetu da: %58 inguruk egiaztatua du hizkuntza eskakizunen bat; hala eta guztiz ere, bada beste gauza bat oraindino askok “normal eta ohikotzat” hartzen ez duena: Administrazioan euskaraz ere lan egin daitekeela sinestea. Urte hauetan ez da asmatu langileen hizkuntza gaitasuna eguneroko lanean neurri egokian islatzen; horren ondorioz, gaztelaniaz egiten da lan nagusiki. Hauxe, beraz, hemendik aitzina “normaldu” behar dena: Administrazioan euskara ere lan hizkuntza izatea.

Eta nola lortu “normaltze” hori? Nola lortu bi lan hizkuntzen arteko benetako berdintasuna, eta ez bakarrik berdintasun formala, eta are gutxiago itxura soileko berdintasuna? Plangintza-rena bada bide bat, baina inola ere ezin pentsa daiteke planifikatze soilak eramango gaituela euskararen erabilera areagotzera: korrelazio hori ez da ezinbestekoa. Egia da plana behar dela, eta metodologia arina, eta baliabide ugari... Egia da hori guztia behar dela, baina ez da nahikoa. Euskara ere Administrazioari lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana; horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horrezaz gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiteko lehen urratsak emateko, baita ere gaztelania-erikiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz jarduten hasteko.

Horixe izango da, hain zuzen ere, IV. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan hizkuntza “normala” bilakatzea; hau da, bihar-etziko planen xedea ez da izango euskararen “presentzia” bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; hortaz, oraingo plangintzaldiaren helmuga izango da Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasuneranzko pauso eraginkorrak ematea.

Administrazioak zabaldu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, hain zuzen ere aurreko plangintzaldien bitartez ezagutza maila ona erdietsia den une honetan: izan direlako gara.

### 3.4. IV. Plangintzaldiaren oinarriak eta partehartzaileak

Hiru izango dira, bereziki, Plangintzaldi honen oinarriak:

1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak: bideak jarri hizkuntzen berdintasunerantz jotzeko; hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari harrera euskaraz ere bermatzea, herritar horri inolako deserosotasunik ez eragiteko.
2. Eusko Jaurlaritzako irizpideak jarraituz gero, inoiz baino langile gehiagok hartuko luke parte erabilera planetan: batetik, derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten guzti-guztiak sartuko lirarteke (8.834 langile); eta, bestetik, borondatez, derrigortasun data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak (3.209 langile). Kontua da, administrazioek euskara zerbitzu hizkuntza moduan erabiltzeaz gain, aipatu baldintzak betetzen dituzten milaka langile horiek erabiliko luketela euskara euren eginkizunetarako batean edo batzuetan lan hizkuntza legez.
3. Horrenbestez, erabilera planak irizpide horien arabera eginez gero, partehartzaileek euskara ere lan hizkuntza bezala erabiliko dute Administrazioan, maila batean edo bes-

tean: gutxienez funtzio komunikatiboren *bat* egingo dute euskaraz. Herri-administrazioek aukera dezakete zein komunikaziotan egingo den euskaraz eta zenbat, malgutasunez eta progresibitatea zainduz, oso kontuan hartuz herri-administrazio bakoitzaren egoera eta noraino iritsi nahi duten euskararen erabileraren eremuan, baina, aurrera begira beti. Horrela, derrigortasun datak eta hizkuntza eskakizunak benetako tresna edo bitarteko izango dira euskara erabilerarekin lotzeko, eta ez ezagutzarekin soilik, orain arte maiz gertatu den bezala.

### 3.5. Derrigortasun datak

86/1997 Dekretuak 11. artikuluko 1. puntuan esaten du Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko duela zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Artikulu bereko 3. puntuak, gainera, ondoko hau zehazten du hitzez hitz:

“Plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, beti ere, herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta”.

Bada, IV. Plangintzaldia hasi den honetan 2001eko datuak daude indarrean, horiek baitira argitaratu diren azkenak, eta horien arabera izango dira indizeak.

IV. Plangintzaldian beste esanahi bat eman nahi zaio derrigortasun dataren kontzeptuari; hobeto esanda, derrigortasun data kontzeptuaren berezko esanahira bueltatzea da helburua, ezagutza eta erabilera elkarri uztartzeko asmatu zen tresna hartara. Xede horretan oinarriturik, derrigortasun datak jartzeko hurrenkera hau proposatzen da:

- Jendaurreko atal eta dotazioak.
- Atal elebidunak.
- Gizarte izaerako atalak, baldin eta plangintzaldiaren barruan atal elebidun izateko aukeratu badira.
- Gizarte izaerako atalak.
- Izaera orokorreko atalak.
- Bestelako izaerako atalak.

Hurrenkera hori jarraitzea da gomendioa, eta herri-administrazio bakoitzak dagokion gutxieneko helburua betetzera joko du, 86/1997 Dekretuaren arabera. Dekretuak ezarritako helburutik

gora jotzekotan, derrigortasun datak jarri ahal izango dira baldin eta lanpostuaren jabeak dagoen hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu eta herri-administrazioaren erabilera planetan sartuta badago.

### 3.6. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak, oinarri eta helmuga<sup>1</sup>

Laugarren erabilera plan honetako zutabe nagusienetakotzat jo ditzakegu Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak. 86/1997 Dekretuaren 18. artikuluko c) eta d) puntuetan esaten da erabilera planetan zehatz-mehatz azalduko dela euskara nola erabili eta tratatuko den esparru zehatzetan.

Gaur egun zenbait herri-administrazioek definituak dituzte dagoeneko irizpideok, esaterako, foru aldundiek; eta beste askotan, onartuak dituzte Euskararen Udal Ordenantzak; hala ere, III. Plangintzaldiko balorazioak azaleratu du asko direla oraindik irizpide horiek definitu eta onartu gabe dituzten herri-administrazioak, eta definitua izatekotan ere, batez ere, kanpora begirako irizpideak ezartzen direla. Horren haritik, aurrera begirako bigarren lan-ildoan, ezagutza erabilera bideratzeko mekanismoak ezarri beharrez jardutean, aipatzen zen, beste gauza askoren artean, irizpide horiek definitu beharra, eta definitu ondoren, jakitera eman eta jarraipena egin beharra.

Hori horrela, Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak aintzat hartuta, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako araubide orokor bat osatu da. Araubide orokor horrek erabilera planen helmuga eta pausoak zehaztuko ditu. Jakina, irizpide horiek Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak bere egoerara ekarri, egokitu eta erabilera planetan zehaztu eta gauzatu ahal izango ditu, baina betiere kontuan hartu eta betetzera joko du arian-arian, etengabe eta beti aurrera begira.

Herri-administrazio bakoitzak ere erabaki beharko lituzke bere jarduerarako hizkuntza irizpideak, nahiz barrura begira, nahiz kanpora begira. Irizpide horiek islatuko dute zeintzuk diren administrazio bakoitzaren helburuak, jarraibideak eta erritmoak. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak plangintzaren bizkarrezurra dira, zalantzarik gabe. Eusko Jaurlaritzaren Planaren baitan jasotako hizkuntza irizpideei jarraiki, hona hemen zeintzuk diren araubide horretan jorratu diren esparruak, eta baita zenbait iradokizun labur-labur bada ere, administrazio bakoitzak bere egoerara egokitu ditzan.

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzak garatuak ditu Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak; nolahi ere, une honetan tramitean daudenez, Gobernu Batzordeak onartzen dituen helaraziko zaizkie herri-administrazio guztiei.

## Esparruak

- Ahozko komunikazioak
- Idatzizko komunikazioak
- Komunikazio telematikoak
- Itzulpen irizpideak
- Langileen prestakuntza orokorra
- Erregistroa
- Diru-laguntzak
- Argitalpenak
- Tresna eta aplikazio informatikoak
- Internet eta intranet sareak
- Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak
- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
- Izen ofizialak
- Kontratazio administratiboak –ikus. B eranskina–.

## Iradokizun batzuk

- Argi eta garbi azaldu behar da zein hizkuntza erabili kasu bakoitzean: ahoz eta idatziz; herritarrekin, beste administrazioekin eta administrazio barruan; igorle eta hartzaile moduan...
- Administrazioak jarrera aktiboa hartu behar luke, eta, lehen aldiz, eskua luzatu berarekin euskaraz ere harremanetan jarri ahal izateko, bai ahoz eta baita idatziz ere.
- Kalitatezko komunikazio idatzia sustatzearen alde egin behar du Administrazioak; hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak ekoiztea: komunikatzen dutenak, lehen irakurraldian ulertzen direnak, hizkuntza bakoitzaren esateko era edo estiloa aintzat hartzen dutenak...
- Behar-beharrezkoa da lehenetasuna ematea sortze lanari, alegia, gaitasuna duen orok bere lana euskaraz ere egiteari, baina itzulpenetara jo gabe.

- Idazki bat bi hizkuntza ofizialetan emateko, itzulpena ez da ezinbestekoa; hor daude, esate baterako, idazketa elebiduna eta korredakzioa, hizkuntza ofizial bien estiloa eta esateko modua dagokien hizkuntza komunitateari egokitzeko.
- Erabilera planetan hautatutako lehentasunezko komunikazioak ez dira, berez eta besterik gabe, itzuli behar, komunikazio horiek gauzatu behar dituenak berariazko prestakuntza jaso badu horretarako.
- Euskarari bere tokia egin behar zaio langileen prestakuntza orokorrean (kalitatezko ikastaroen bidez), aplikazio informatikoetan, web-orrietan eta kontratazio administrati-boan (pleguetan hizkuntza-baldintzei buruzko klausulak sartuta, esleipena egiterakoan klausula horiek kontuan izanik, eta zerbitzuaren prestazioak iraun bitartean horren jarraipena eginez).

### 3.7. Inoiz baino langile gehiagok hartuko du parte erabilera planetan

Eusko Jaurlaritzako irizpideak aintzat hartzen badira, erabilera normalizatzeko IV. plangintzaldian langile hauek hartuko lukete parte, lanpostuen jabe izan edo ez izan: derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenek, edozein dela ere beren atalaren izaera.

Horietaz gain, derrigortasun data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenei gonbita egin ahal izango diete herri-administrazioek euren borondatez erabilera planean sartzeko.

Gainera, salbuespen gisa, zenbait lanposturen lan-jardunak estrategikotzat jotzen badira, erakundeak gonbita egin ahal izango die derrigortasun data izanik dagokien hizkuntza eskakizuna baino bat baxuagoa egiaztatu dutenei.

Dena dela, dagokion Administrazioak ikusten duenean abian jarritako ekintzei esker langileari jarritako helburua lortu dela (hari lotutako adierazleak hala ziurtatzen duelako); alegia, frogatzen denean langileak dagozkion komunikazioak euskaraz ere gauzaten dituela, ekintza planetik kanpo uzteko aukera izango da, harik eta beste urrats bat eman eta beste helbururen bat ezartzen zaion arte. Nahiz eta kanpoan egon, langilea erabilera planaren eraginpean egongo litzateke, eta jarraipena egingo litzaioke.

Jakina, zenbait herri-administrazioen tamaina dela-eta gerta liteke erabilera plan bat baino gehiago izatea departamentuka; horrelakoetan, departamentu bateko erabilera planean sartuta dagoen langile bat beste departamentu batera mugitzean, orduan Administrazioak langile horri bermatu beharko lioke jarraipena departamentu berrian.

### 3.8. Langileen lan-jardunen izaera komunikatiboa, erabilera planaren giltzarri

Eusko Jaurlaritzan egin den Planean berebiziko garrantzia du nork zer egin behar duen euskaraz erabakitzeak, eta horretarako, azterketa komunikatiboaren bidea bultzatu da. Bide hori erabilgarria izan daiteke herri-administrazio askorentzat ere, eta horren arabera, erabilera planean nortzuk parte hartuko duten zehaztu ondoren, jarraipenerako sortzen den batzordeak erabakiko du zer egingo den euskaraz bere eremuan, hori bai, beti aurrera begira: helburu dela euskara ahalik eta gehien erabiltzea bakoitzaren eremuan.

Ikuspuntu komunikatiboaren arabera, komunikazio guztiak ez dira berdinak, ez dute garrantzia estrategiko bera Administrazioarentzat. Horregatik komeni da, parte hartzen duten langile horiek guztiak aintzat hartuta, azterketa komunikatiboa egitea; alegia, begiratzea erabilera planetan sartzen diren langileek gauzatzen dituzten lan-jardunen izaera komunikatiboa, eta modu pragmatikoan eta zailtasunak ikusten dituen uneetarako irtenbideak aurreikusita, erabakitzea zer egingo den euskaraz.

Edozein kasutan ere, ahaleginak egin beharko liriateke lan-prozedura horiek sistematizatzeko, eta tipologia jakin baten barruan sailkatzeko, euskararen erabilerak modu sistematikoan aurrera egiteko irizpide bateratuak izan ditzan herri-administrazio guztietan.

Ikerketa sakonago hori egin bitartean, hona hemen, azterketa komunikatiboa garatzean, zein lehentasun hurrenkerari jarraituko zaion, Eusko Jaurlaritzan behinik behin:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Euskarazko komunikazioa lehenesten dutela adierazi duten atal, sail eta erakundeekin izaten diren harremanak.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, harreman sare handia dutenak, Administrazioen barruan izan edo kanpoan izan.
- Eragin handiko komunikazioak:
  - ◇ Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak).
  - ◇ Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak).
  - ◇ Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak...).
  - ◇ Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.
  - ◇ Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web-orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...).
- Administrazioaren ikuspuntutik, lehenesteko modukoak diren beste komunikazio batzuk.

Bi hitzetan esateko: euskararen erabilera normalizatzeari begira, Administrazioako langileen komunikazio bat (ahozkoa zein idatzizkoa) lehenetsuzkoa izango da baldin eta herritarrei edo euskara lehenesten duten atal edo administrazioei zuzentzen bazaie, edota, maiztasuna edo garrantzia kontuan hartuta, eragin handia badu, kasuan kasuko administrazioaren arabera.

Hala ere, gomendioa da azterketa komunikatibo hori modu errealistan egitea, ezinezkorik ezarri gabe, jardunbideen norabidea, harreman sarea eta transbertsalitatea bere osoan ondo begiratuta, euskararen katea eten ez dadin.

### 3.9. Berariazko hizkuntza prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia

Administrazioako langile euskaldun gehienek hizkuntza prestakuntza orokorra jaso dute (alfabetatze edo euskalduntze ikastaroak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza gaitasun jakin bat eskuratu dute. Alde horretatik, hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; nolahi ere, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza eskakizuna egiaztatu zenetik orain arte; zenbateraino erabili den euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa... Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langilek kezka bat baino gehiago izan dezaketela, pentsatzen dutelako, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko. Hori horrela izanda ere, argi dago langileek hizkuntza eskuratuko dutela, lana euskaraz egiten duten neurrian. Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza prestakuntza: irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzera. Horretarako, egokia litzateke abian jartzea administrazioko hizkeraren gaineko ikastaroak, hizkera juridikoari buruzkoak edota idazki-ereduak lantzekoak.

Berariazko hizkuntza prestakuntzarako bi bide aurreikusten dira Eusko Jaurlaritzako Erabilera Planean: ikastaroak eta trebakuntza saioak. Lehenak presentzialak (irakasleen bidez) edo on-line izaerakoak (tutoreen bidez) izan daitezke; bigarrenek, trebakuntza saioek alegia, segida praktikoa emango liokete ikastaro horietan ikasitakoari.

Edozein kasutan ere, erabilera plana bitarteko dela, Hizkuntza Ofizialen Batzordeak (departamentukoak edo/eta erakunde osokoak) ziurtatu beharko luke erabateko lotura dagoela langileak planaren arabera landu behar duen komunikazioaren eta horretarako antolatutako ikastaro espezifikoaren artean (trebakuntza saioak barne). Azken finean, ezin da ahaztu langilea prestatzen ari dela, ez euskara gehiago jakiteko, baizik eta euskaraz ere lan egiteko: komunikazioak (ahozkoak zein idatzikoak) euskaraz ere egiteko. Horiek horrela izanik berariazko prestakuntzak epe mugatua izango luke: hasiko litzateke, langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean; eta bukatu, komunikazio edo zeregin hori euskaraz "normaltasun" osoz egiteko gauza denean.

### 3.10. Antolakuntza egiturak, erabilera planen kudeaketa eta jarraipena ziurtatzeko

III. Plangintzaldiaren balorazioan aurrera begira proposatutako lan ildoetan, azpimarratzen zen erabilera planak administrazio guztietara hedatu beharra, eta, horretaz gain, bereiziki landu beharrekotzat azpimarratzen zen jarraipena egiteko tresnak garatzea.

Erabilera planei jarraipena egitea ezinbestekoa da, eta horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gomendioa da herri-administrazio bakoitzean Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa batzordea sortzea, izan ere, Batzorde horren esku egongo da, hein handi batean, planaren arrakasta.

Dena dela, argi dago alde handia dagoela herri-administrazio batetik bestera, eta batzuetan, beharbada, erabakiko da administrazio berean plan bat baino gehiago aurrera eramatea. Bada, horrelakoetan, Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzorde bat egongo da, plan bakoitzaren kudeaketaz eta jarraipenaz arduratzeko; eta horien guzti horien gainetik, Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzorde Iraunkorra osa daiteke, proiektu osoaren erantzukizuna bere gain hartzeko.

Besteak beste, honelakoak izan litezke Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeetako parteak:

- Planak eragindako langileen ordezkaria/k
- Planak eragindako langileen arduraduna/k
- Normalkuntza teknikaria/k
- Euskararen ardura daraman kargu politikoa/k

Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa batzordeak, beste lan askoren artean, erabilera planen kudeaketa eta jarraipena egingo luke. Herri-administrazio bakoitzaren abiapuntua ezberdina da, eta ezberdinak izango dira, era berean, planak garatzeko helburuak, estrategiak eta ekintzak: askatasunez joka daiteke horretan ere, eta hala jokatu behar da.

Urtero-urtero, Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa batzordeak balorazio txosten labur bat egitea komeni da, zenbait datu kuantitatibo eta kualitatibo bildurik, planaren indar-gune eta ahulezia nagusiak azaleratzeko. Era horretara, erraztu egingo da aurrera begirako erabakiak hartzea.

Gainera, Plangintzaldiaren erdian eta bukaeran, tarteko eta bukaerako balorazio osatuagoa egingo da. Balorazio horiek osatzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herri-administrazio guztiei eskatuko dizkie euskararen erabilerrari buruzko datuak, eta datu horiek erakutsiko digute erabilera zertan den 86/1997 Dekretupeko herri-administrazioetan.

### 3.11. Metodologia erraza eta malgua

III. Plangintzaldiko balorazioan argi geratu da euskararen erabilerarako metodologia eta tresnak landu beharra, eta bereziki, jarraipena egiteko tresnak. Galdetutakoen iritziz, Aebemet metodologia baliagarria izan da oinarri bat ezartzeko, baina egokitu beharra dago, batez ere, malguago eta erabilgarriago egiteko. Era berean, lan taldeetan azpimarratu da erabilera planak administrazio guztietan ezartzearen garrantzia. Eta, jakina, hedatze horretan, eta zeresanik ez, ondorengo jarraipena bermatzeko, oso lagungarri izango da tresna arin eta ongi diseinatu bat.

Horrenbestez, erabilera planen kudeaketa osorako metodologia berri eta malgutzen aha-lerin berezia egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta dagoeneko badarabilte Jaur-laritzako sailetan. Ustez, gainera, oraindik erabilera planik ez daukaten herri-administrazioetan ezartzeko modukoa izan liteke, haien ezaugarrietara egokitu ondoren.

Metodologia berri honetan<sup>2</sup> erakunde osoa hartzen da aintzat, hau da, helburuen bitartez lortu nahi da, esate baterako, errotulazioa, aplikazioak, argitalpenak edota kontratazioetan ere euskarari bere tokia aitortzea; baina, oroz gainera, langileei erreparatzen zaie bereziki, horiek baitira, azken finean, eguneroko jardunean euskara lan hizkuntza moduan erabiliko dutenak.

Metodologia honen bidez eta Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak helmuga eta gidarizat harturik, herri-administrazio bakoitzak zehaztu behar du zein helburu lortu nahi dituen, eta helburu horien betetze-maila neurtzeko adierazle batzuk markatu. Horretaz gain, metodologian aurreikusten da zehaztu beharra dagoela nola lortuko diren helburuak, hau da, zein estrategia eta baliabide erabiliko diren helburuok errealitate bihurtzeko, eta, batez ere, zein ekintza zehatz jarriko diren martxan, hasierako helburuak betetzeko (ikastaroak, idazki-ereduak, e.a.).

Metodologia hori luze eta zabal jorratzen da honekin batera doan A eranskinean; gainera, behar diren egokitzapen guztiak egin ondoren, aplikazio berri bat jarriko da martxan eta herri-administrazioei eskainiko zaie, horiek, nahi izanez gero, horretaz baliatu daitezten.

### 3.12. Langileak motibatu eta sentsibilizatu beharra: “pixka bat es mucho”

Helburu nagusia da, eta dagoeneko esana dago, euskara ere Administrazioiko hizkuntza “normala” izatea; jakinekoa da, ordea, helburu hori ez dela goizetik gauera lortuko; eta jakinekoa da ere inoiz egin gabeko lanetan hasteak deserosotasuna sor dezakeela, bai administrazioetan eta baita langileengan ere. Baina, erronka berri hau ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena bakarrik, herri-administrazio guztiena baizik. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza-aukera beti eta orekin gainetik errespetatu be-

<sup>2</sup> Ikus A eranskina

harko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere, eta, aldi berean, hizkuntza-aukera egiazkorantz pausoz pauso, etengabe, eramango gaituen prozesua izan behar du.

Horrenbestez, euskara ere lan hizkuntza izan dadin herri-administrazio bakoitzak ispiluaeren aurrean jarri beharko luke bere burua, eta erabaki zeri heldu, modu errealistan baina baita auto-exigentean ere. Administrazioek jabetu beharra daukate: ezin da aurrera egin deserosotasunik izango direla aldeaz aurretik onartu gabe. Argi dago honelako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar zaiela aurre; argi dago, era berean, administrazio bakoitzak erabakiko duela zein izango den bere planaren helmuga eta abiadura; baina gutxieneko batzuk jarri beharra dago: euskara lan hizkuntza izango da lan-jardun batzuetan, hain zuzen ere, 86/1997 Dekretuan jasotako helburuak bete daitezten. Gutxienekoa izango da Dekretuak jasotzen duena; hortik gora egitea administrazio bakoitzaren borondatearen eta ahalbideen esku egongo litzateke.

Alde horretatik, langileei ere dei egiten zaie euren ekarpena egitera: euskara ere erabiltzera eguneroko zenbait lan eginkizunetan; izan ere, “pixka bat es mucho”, eta bakoitzak apur bat eginda, denon artean asko egingo dugu. Eurak dira, azken batean, hizkuntzen artean hautatzeko aukera eskaini behar dutenak. Hasieran zalantzatan ibiliko dira: gauza ote diren, asmatuko ote duten, beste hizkuntza ganoraz noizbait erabiliko ote duten... baina ez dago zertan, zeren jakina baita herri-langileek hizkuntza gaitasuna badutela, uste dutena baino dezente handiagoa gainera; langileak eurak dira sinetsi eta euren buruarengan konfiantza hartu behar dutenak. Eta horretarako, erabilera planari buruzko komunikazio ekintza batetik abiatu, baliabideak jarri beharko lirateke, langileak sentsibilizatu eta trebatzeko, bistakoa delako gai direla lanari dagozkion zenbait komunikazio euskaraz ere gauzatzeko.

## 4

# AMAIERA

III. Plangintzaldiaren balorazioak etorkizunera begira landu beharreko lan ildoak urratu zituen, eta ildo horietatik joango da IV. Plangintzaldia: ezagutza erabilerara bideratzeko mekanismoak ezarriko dira, hizkuntza eskakizunei eta egiaztatze sistemari buruzko gogoeta egin da, euskararen erabilera planetan jarritako helburuek bat egingo dute 86/1997 Dekretuarekin, euskararen erabilerarako metodologia eta jarraipena egiteko tresnak landuko dira eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere eginkizunen artean izango du koordinaziorako guneak bultzatzea eta euskararen erabilera bultzatzeko irizpide orokorrak hedatzea.

Administrazioan esparru asko daude, eta ezin uka daiteke euskara gero eta gehiago “ikus-ten” dela, euskararen “presentzia” inoiz baino handiagoa dela, batez ere, kanpora begirako arloetan (errotulazioa, papeleria, web-ak, iragarpenak...); baina, egia ere bada langileek oraindik neurri txikian baliatzen dutela euskara lan hizkuntza bezala. Ahalegin handiak egin dira azken

urteotan langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko; denbora eta diru asko joan dira zeregin horretan, eta ezaguerari begira, emaitzak ez dira kaskarrak izan; prestatuta gaude, beraz, neurri batean, euskaraz lan egiteko. Nolanahi ere, pertsoneri buruz ari gara, pertsonak dira protagonista nagusiak, eta hizkuntza ohituretan eragitea ez da hizkuntza paisaian eragitea bezain erraza. Horixe bada, gure erronka IV. Plangintzaldiaren atarian: Administrazioiko langileei ikusaraztea euskara ere apurka-apurka ohiko lan hizkuntza izan daitekeela, eta hori lortze aldera beharrezko neurriak eta baliabideak jarriko direla.

Administrazioak herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu, eta oraindik orain aitortu beharra dago euskal hiztunen eskubide horiek zenbait kasutan urratu egiten direla. Horretara datoz, hain zuzen, 86/1997 Dekretupeko herri-administrazio orok bost urtero definitu eta ezarri behar dituen erabilera planak. Oraingo hau laugarrena izango da eta **erabilera** izango du ardatz. Orain arte ez bezala, erabat lotuko dira hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak euskara lan hizkuntza moduan erabiltzearekin. Bestalde, planean ezartzen diren helburuak betetzeko, langile askok hartu ahal izango du parte, baldin eta Eusko Jaurlaritzako Planaren irizpideak jarraitzen badira; era horretara, langile horietako batzuk, derrigortasun data ezarria dutenak alegia, derrigorrez sartuko lirateke, derrigortasun data izateak haxe baitakar: horiek ezinbestez erabili behar izatea euskara euren lanean; eta beste langile batzuek, borondatez, izan ere, derrigortasun data izan ez arren, lortua dute dagokien hizkuntza eskakizuna eta gai dira, beraz, euren lana edo lanaren zati bat euskaraz egiteko. Planean sartzen

den orok, beraz, gauzatuko luke laneko komunikazioen bat, gutxienez, euskaraz. Herri-administrazio bakoitzaren esku egongo litzateke azterketa komunikatiboa egin eta euskaraz zeintzuk gauzatuko diren zehaztea, malgutasunez, eta jardunbideen harreman sarea ondo begiratuta, euskararen katean etenik egon ez dadin. Nolanahi ere, herri-administrazioak ezingo du inola ere Dekretuak ezartzen dizkion helburuetatik behera jardun; are gehiago, hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten banaketa erabilera planarekin lotuta egotea komeni da, eta han jarritako helburuak lortzera begira.

IV. Plangintzaldi honetan, euskaraz jakin arren gaztelaniaz lan egiten duen langile askok lehenengoz erabili ahalko du euskara lan hizkuntza gisa. Urrats hori emateko, berariazko preskakuntza abian jartzea komeni da: langilea prestatuko da hautatutako eginkizunak egiteko, eta ez besteetarako. Gerta daiteke trebakuntza ere behar izatea; hala balitz, mugatua beharko luke izan: hasi langileak ikastaroan ikasitakoa aplikatu behar duen unean, eta bukatu eginkizun hori egiten duen une berean. Une horretatik aurrera, eginkizun hori euskaraz egingo luke langileak, itzultzaileen laguntza eskatu gabe, eta herri-administrazioak jarraipena egingo lioke.

Hori lortzeko, administrazio guztien laguntza eta elkarlana behar da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza prest dago, eta hala egingo du, prozesuaren aitzindari izateko, egin beharreko urratsak koordinatzeko eta bere esku dauden baliabide guztiak herri-administrazioen esku jartzeko; dena dela, IV. Plangintzaldia arrakastatsua izango bada, beharrezkoa da eragile guztien inplikazioa: normalkuntzako teknikariak, langileak, arduradun politikoak, sindikatuak... Denak ba-

tera aritu behar dira herri-administrazio bakoitzean, eta herri-administrazio guztiak denak batera aritu behar dira helburuari begira: euskararen erabilera normalizatzea.

Egitasmo hau ez da “beste” plan estrategikoetarikoa bat. Hori baino gehiago dugu euskara. Euskara da Euskal Herritik kanpoko gainerako administrazioetatik bereizten gaituena; euskara dugu komunikaziorako tresna, eta gure izate kolektibo anizkoitzaren ezaugarririk behinena. Gure esku dago euskara Administrazioa hizkuntza ohikoa izatea. Beste hizkuntza batzuen kasuan ez bezala, euskararenean Euskal Administrazioa baita munduko administrazio bakarra euskara ohikotasunez eta normaltasunez erabil dezakeena. Euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta gizartearen zerbitzura dagoen Administrazioak lehena izan behar du errealitate horretara egokitzen. Bide-erakusle izatea dagokio Administrazioari, eta legeak betearaztea ez ezik –eta horren aurretik– legeak betetzea dagokio. Administrazioak kalitatezko zerbitzua bermatu behar du, eta kalitatea, beste zenbait egitekoren artean, zerbitzua euskaraz ere ematea da.



**A** ERANSKINA

**EUSKO JAURLARITZAN EUSKARAREN  
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

**ERABILITAKO METODOLOGIA**



2003-2007ko Planean AEBEMET metodologia proposatu zen, erabilera planak EAEko herri-administrazioetan zabaltzeko orduan; nolana ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007ko abenduan aurkeztutako Balorazio Txostenean argi geratu zen metodologia hori ezarri zuten hainbat administrazioetan egokitzapen batzuk proposatzen zirela; izan ere, AEBEMET, hizkuntza normalkuntzako teknikari ugarien ustez, astunegia eta zurrunegia zen, eta, beraz, erraztu eta malgutu beharra zegoen, premia berriei erantzuteko eta erabilgarriago egiteko.

Hori guzti hori kontuan izanik, IV. Plangintzaldi honetan metodologia berria proposatzen du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Jaurilaritzako sail eta erakunde autonomoentzat. Hona hemen, bada, metodologiaren urratsak, sail eta erakunde horietako bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko planak garatzeko:

1. Egoeraren diagnosis (kuantitatiboa eta kualitatiboa) egin behar da.
2. Helburuak (orokorrak eta zehatzak) finkatu.
3. Adierazleak ezarri.
4. Estrategiak (orokorrak eta zehatzak) deskribatu.
5. Ekintza plana diseinatu.
6. Plana kudeatu.
7. Planaren jarraipena egin.

## I. Egoeraren diagnosis

Erabilera planik ezin gauza daiteke, aldez aurretik euskararen egoera sail bakoitzean, eragindako atal bakoitzean eta langileen eguneroko komunikazioetan zertan den jakin gabe. Horrenbestez, euskararen egoera sakon ezagutzeko, bi azterketa proposatzen dira, biak ala biak ere plangintzaldiaren hasieran egin beharrekoak:

- Azterketa kuantitatiboa
- Azterketa kualitatiboa

## Azterketa kuantitatiboa

Azterketa-mota honek datu kuantitatiboak eskuratzeko balio du; era askotakoak: kasuan kasuko sailari buruz, administrazio horretako zerbitzu edo atal bati buruz edo atal baten barruan langileek gauzatzen dituzten zenbait lan-jardunen izaera komunikatiboari buruz. Informazio bat edo bestea eskuratzeko, txantiloiei ezberdinak erabil daitezke, eta hor, besteak beste, honako datuok jasoko dira:

- Langileen eta arduradun politikoen euskara maila.
- Hizkuntza paisaia euskarak duen tokia.
- Hizkuntza irizpideak finkaturik dauden ala ez.
- Baliabide informatiboak.
- Euskararen presentzia kontratuetan.
- Kanpo proiektzioa (liburuak, aldizkariak, web-orria, jendaurreko ekitaldiak, iragarpenak).
- Euskararekiko jarrerak.
- Lan-jardun nagusien hizkuntza erabilera (ahozkoak eta idatzizkoak).
- Barne eta kanpo harremanak (ahoz/idatziz formalak/ez formalak).
- Kanpoko hizkuntza eskaera.
- Itzulpenak.
- Lana euskaraz egiteko gaitasuna.
- Lehentasuneko komunikazioen hizkuntza erabilera (ahozkoak eta idatzizkoak).
- Norbanakoen prestakuntza beharrak.

Egoeraren diagnosis egiteko txantiloiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskuratzeko dizkie sail guztietako Kudeaketa batzordeei.

## Azterketa kualitatiboa

Datu kuantitatiboak jaso ondoren, komeni da planean sartutako langileen ordezkari batzuek osatutako lantaldeak eratu eta batzartzea. Galdetegen bitartez lortutako emaitzak lan taldeari aurkeztu, eta horrek bere balorazio kualitatiboa egingo du. Era horretara, zenbakiak ematen duten informazioa kontrastatu eta baloratu egiten da arloan lan egiten dutenekin eta horretan esperientzia dutenekin. Horri esker, sailaren barruan eta atal bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeke dauden aukerak, mehatxuak, ahuleziak eta indarguneak identifikatu ahal dira; hau da, AMIA matrizea osatu.

## 2. Helburuak (orokorrak eta zehatzak)

### *Helburu orokorrak*

Helburuek, euskararen erabilera gehitzera bidean, zer lortu nahi den adierazten dute. Helburuok definitzeko garaian, hainbat irizpide hartu behar dira kontuan:

- Helburua argi eta zehatz erredaktatu behar da.
- Helburuek neurgarriak eta zenbatzeko modukoak izan behar dute, zenbateraino betetzen ari diren jakin ahal izateko.
- Helburuak adierazle bati lotuta joan behar du; izan ere, adierazle horiek helburuaren betetze-maila neurtuko dute.
- Helburuak plangintzaldi jakin bati erantzun behar dio.
- Ezartzen diren helburuek bideragarriak izan behar dute; horrek esan nahi du Sailak jarduteko ahalmena izan behar duela helburu horietan, gutxienez, helburu hori bultzatu edo sustatzerakoan.

Nolanahi ere, helburu orokorrak zehaztu baino lehen, jakin beharra dago zein den xede nagusia; alegia, helburu guztiak bere baitan bilduko dituen asmorik gorena. Eta, legeei erreparatuta, Administrazio orokorraren eta bere erakunde autonomoen kasuan zalantzarik ez dago: helburua da hizkuntzen berdintasuna lortzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatzea, hori guzti hori, presentzia bermatetik haratago joanda eta euskarazko sortze lana areagotuta. Euskara, beraz, lanerako hizkuntza nahi dugu bere osoan: zerbitzu hizkuntza herritarrekin, harreman hizkuntza beste administrazioekin, eta Jaurlearitza barruko lan hizkuntza.

Asmo nagusi horretan oinarriturik, hona hemen Eusko Jaurlearitzako sail eta erakunde autonomoen erabilera planetarako proposatzen diren lau helburu orokorrak:

- *Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu.*
- *Euskararen idatzizko erabilera areagotu, sorkuntzari lehentasuna emanaz.*
- *Euskararen ahozko erabilera gehitu.*
- *Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu.*

### *Helburu zehatzak*

Helburu orokorrak, izenak berak dioen bezala, orokorregiak dira, eta errealitate ezberdin asko hartzen dituzte beren baitan. Hori mugatzeko, helburu orokor bakoitza helburu zehatzetan banatzen da. Erreparatu adibide honi:

**HELBURU OROKORRA:  
EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA AREAGOTU,  
SORKUNTZARI LEHENTASUNA EMANAZ**

Idatzizko harremani buruz ari garelarik, oso egoera ezberdinak aurki daitezke: harreman horiek barrukoak edo kanpora begirakoak izan daitezke; formalitate-maila ere aldatu daiteke idazki batzuetatik besteetara. Horrela bada, helburu orokorraren inguruan, honako helburu zehatz hauek zehaztuko dira:

- *Idatzizko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.*
- *Idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu (harreman ofizial eta ez ofizialetan).*
- *Idatzizko harremanetan euskarazko sortze lana gehitu (gaur egun euskaraz zabalitzen diren idazki gehienak gaztelaniaz sortutako jatorrizko testuaren itzulpenak dira. Helburua argi dago: itzulpenaren beharra gutxitu).*
- *Idatzizko harremanetan euskarazko dokumentuen kalitatea bermatu (azken batean kontua ez da bakarrik nola edo hala euskararen produkzioak gora egitea baizik eta euskarazko idazkiak kalitatezkoak izatea).*

### 3. Adierazleak

Orain arte bi gauza egin dira: helburu orokorrak aukeratu, eta helburu orokor bakoitzaren barruan, helburu zehatzak deskribatu. Erabakita dago, beraz, planaren bidez zer (zein helburu) lortu nahi den. Jakina, helburu horiek *zenbateraino* betetzen diren jakiteko tresnaren bat behar da. Bada, horixe dira adierazleak: neurgailu batzuk, helburuak betetzen ari diren ala ez jakiteko.

Kontu egin behar da, zeren adierazleak ez zaizkio lotzen helburu orokorrari, baizik eta helburu orokor horren helburu zehatz bakoitzari. Hori bai, helburu zehatz bakoitzak nahi adina adierazle izan ditzake, betiere, den-denak argiak eta neurtzeko modukoak.

Demagun, adibidez, lortu beharreko helburu zehatza hau dela: *Ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu*. Helburu hori neurtzeko adierazleak lau hauek izan daitezke:

- *Euskarazko harrera telefonoan (%)*
- *Euskarazko harrera leihatilan (%)*
- *Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera (%)*
- *Kanpo harreman ofizialetan/formaletan euskararen erabilera (%)*

Ikusten denez, ehunekoak ageri dira. Abiapuntuko ehunekoak diagnosiak erakutsiko ditu. Gogoan izan helburuak eta adierazleak finkatu aurretik, egoeraren diagnosis egin dela sail eta atal bakoitzean; ezaguna da, beraz, zenbaterainokoa den euskarazko harrera telefonoan eta leihatilan, ezaguna da, era berean, jendaurreko ekitaldietan saileko ordezkariak euskaraz egiten duten ala ez... Beraz, adierazi beharko da plangintzaldiaren amaieran zein ehunekotara heldu nahi duen Sailak. Hau da, une honetan euskarazko harrera telefonoan %33 baldin bada, plangintzaldiaren amaieran. %50 izan daiteke edo %60... Beti gora.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako ditu adierazle guztiak; hala ere, sail bakoitzak, bere plana adosterakoan, kendu, erantsi, moldatu eta egokitu egingo ditu proposamen horiek bere beharren arabera.

## 4. Estrategiak

Ezarritako helburuak lortzeko definitzen diren lan-ildoak dira estrategiak. Helburuetara heltzeko bidea adierazten dute, beraz. *Nola* helduko gara helburuak betetzera? Zein bide landuko da? Galdera horiei erantzuten diete estrategiek.

Helburu zehatz bakoitzak bere estrategia dauka, baina litekeena da helburu batzuek estrategia bera izatea, eta, ondorioz, estrategia hori behin eta berriro errepikatzea. Horrelakorik ez gertatzeko, estrategiak bost multzo nagusitan bildu dira:

- *Euskararen erabilera normalizatzeko planaren komunikazioa bermatu.*
- *Erabileraren aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa landu.*
- *Euskarazko eskaintza ugaritu eta euskarazko kanpo eskaera handiagoa izan dadin sustatu.*
- *Langileak gaitu, euskaraz lan egiteko.*
- *Baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko.*

Baina hemen ere, helburuekin gertatutakoa gertatzen da; alegia, estrategia orokor bakoitzaren barruan, hainbat estrategia zehatz deskriba daitezke. Begiratu ondorengo adibidea:

### **BALIABIDEAK JARRI LANGILEEN ESKU, EUSKARAREN AHOZKO ETA IDATZIZKO ERABILERA SUSTATZEKO**

- *Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu: idazkiak euskaratu, idazki traketsak moldatu, txantiloak prestatu.*

- *Lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren zerrenda terminologikoak prestatu.*
- *Eguneroko lanean sortu daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztu.*
- *Dokumentu eta ahozko diskurtso nagusien kalitatea neurtzeko baliabideak prestatu.*
- *Baliabide informatikoen euskarazko erabilera ahalbideratu eta sustatu.*
- *Barrurako kontratazioetan euskarazko giza baliabideen eta tresnen presentzia.*

## 5. Ekintza plana

Estrategiak aurrera eramateko, ekintza plan bat diseinatu beharra dago; hau da, zehaztutako estrategia zehatz bakoitzak bere jarduerak izan behar ditu, helburuak beteko badira: motibazio kanpainak, ikastaroak, administrazioiko idazkien egokitzapenak, itzulpenak... Erreparatu adibideari:

**Oinarrizko estrategia:** Baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko.

**Azpi estrategia:** Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu.

### **Ekintzak:**

- Atal bakoitzeko lan-jardun nagusiak hautatu eta euskarazko gabeziak antzeman.
- Gabezia horiek betetzeko kasuan kasuko neurriak hartu (itzulpenak, testuen egokitzapena, ikastaroak...)
- Administrazioiko kalitatezko hizkeraren irizpideak bilduko dituen liburua banatu Saileko langileei (IVAPeko estilo liburua).

Urrats honetara iritsi arte egin den bezala, ekintza horiek guztiak HPSk proposatuko ditu. Gero, kasuan-kasuko planak abian jartzen direnean, horietako batzuk bazter geldituko dira, eta, ordez, beste batzuk azaldu.

## 6. Planaren kudeaketa


Kontuan hartzen badugu metodologia bera ezarriko dela Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietan, erraz ulertuko dugu ezinbestekoa dela eragileen arteko koordinazioa. Hori lortze aldera, hiru batzorde nagusi eratuko dira (haien osaketa eta eginkizunak Plangintzaldiaren 2.3.8. puntuan daude jasota):

- **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra**  
Jaurlaritza mailako organorik gorena izango da, eta proiektu osoaren ardura izango du.
- **Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea**  
Eusko Jaurlaritzako sail guztiek izango dute kudeaketa batzorde bana, izenak dioen bezala, sail horren erabilera planaren jarraipena egiteko.
- **Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea**  
Jaurlaritza mailako batzorde teknikoa izango da, eta garrantzi handikoa, bide emango digulako adituek hausnarketak eta tokian tokiko esperientziak elkarren artean trukatzeko.

Ikusten denez, planak kudeatzearen ardura hiru organo horiek izango dute; saileko hizkuntza normalkuntzako teknikaria izango da, ordea, planaren eragile nagusia. Lan hori errazteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak behar diren aplikazio informatikoak jarriko ditu hizkuntza normalkuntzako teknikarion esku. Aplikazio informatiko horietan ekintza plana, ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko modua, eta erabilera planean parte hartzen dutenek zer egingo duten euskaraz eta horretarako beharko duten berriazko prestakuntza jasoko dira.

## 7. Planaren jarraipena

Plangintzari batean definizioa eta ezarpena bezain garrantzitsua da jarraipenerako prozedura zehaztea. Eusko Jaurlaritzako erabilera planek eskema hau jarraitu beharko lukete:



Eskema horretan ageri denez, garrantzi handia du jarraipena ondo egituratzeak, izan ere jarraipenak bide eman behar du, katea eten gabe, helburuak berrikusteko, estrategia eta ekintza berriak planteatzeko, eta horrela, urtez urte, sailtako erabilera planak definitzen joateko.

Hona hemen proiektuaren jarraipena egiteko urratsen proposamena (argibide gehiagorako, begiratu Plangintzaldiaren 2.3.9. eta 2.3.10 puntuak):

- Diagnosian egindako neurketa oinarri dela, 2012ra begirako helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintzak zehaztuko dira.
- Urtero-urtero, langile berriak (eta landu beharreko komunikazioak) proiektuan sartu, aterra eta plana bera kudeatu.
- Urte bakoitzaren amaieran Urteko balorazio txostena idatzi, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali. HPSk, sailetako txosten horiek bildurik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrari aurkeztuko dizkio; gainera, plangintzaldiaren erdian eta amaieran herri-administrazio guztiei eskatuko zaizkie euskararen erabilerari buruzko datuak (udalak, foru-aldundiak, Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak barne). Tarteko eta bukaerako txosten horiek Gobernuari eta Legebiltzarrari aurkeztuko zaizkio.
- Urtez urte beharrezko egokitzapenak egin, Saileko erabilera plana arrakastatsua izan dadin.

# **B** ERANSKINA

**ERABAKI-PROPOSAMENA, EUSKAL HERRIKO  
AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO  
OROKORRAREN ETA HORREN ERAKUNDE  
AUTONOMOEN ETA ZUZENBIDE PRIBATUPEKO  
ENTE PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK  
GAUZATZEKO ORDUAN BETE BEHAR DIREN  
HIZKUNTZA-BALDINTZEI BURUZKOA**



Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2006ko otsailaren 28an eginiko bilkuran honako akordioa hartu zuen:

**ERABAKI-PROPOSAMENA, EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HORREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ZUZENBIDE PRIBATUPEKO ENTE PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK GAUZATZEKO ORDUAN BETE BEHAR DIREN HIZKUNTZA-BALDINTZEI BURUZKOA.. (EXP. 2006/00126) (A/20060062)**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren Atariko Tituluan herri honen nortasun-ezaugarriak daude jasota. Bertan adierazten dira, hurrenkera honetan, izena, hartzen duen lurraldea, erkidego osorako erakundeen egoitzak, bandera, hizkuntza eta, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren zerrenda.

Gurea gizartea elebiduna da, eta herri-administrazio elebidun batek kudeatzen ditu horren interesak, kontuan izanik antolamendu juridikoak euskara eta gaztelania jotzen dituela ofizialtzat, biei balio eta duintasun berbera emanda.

Testuinguru horretan, administrazioaren jarduera ezin da ulertu hizkuntzari buruz onartu dugun araubide juridikotik kanpo. Hizkuntza bien ofizialtasunak berme bat izan behar du herritarrek askatasunez aukeratutako hizkuntza erabili ahal izan dezaten botere publikoen eta horien agenteen aurrean. Botere publikoek hizkuntza bien ofizialtasunaren aurrean izan behar duten jarrerak, ordea, ez du diskrezionalitaterako biderik ematen.

Elebitasuna ez da hautazkoa herri-administrazioarentzat; aitzitik, legezko eskakizuna da, eta administrazioaren jarduera bat ere ez dago salbuetsita, ezta kontratazioa ere.

Beraz, indarrean dagoen antolamendu juridikoari atxikitzeko eta gizartearen eta administrazioaren errealitatearekin koherente izateko, nahitaezkoa da ondasunak eta zerbitzuak eman eta hartzeko burutzen diren administrazio jardueretan gure autonomia-erkidegoko hizkuntza bietan normaltasunez funtzionatzea, baita administrazioaren kontratazio publikoaren alorrean ere, hala kontratazioaren helburu diren prestazioen hartzailea administrazio elebiduna denean, gure kasuan bezala, nola administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean gurea bezalako gizarte elebidun bati eman beharreko ondasun eta zerbitzuak kudeatu eta emateko ardura.

Ildo horretatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007 aldirako Plana onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakian berariaz aurreikusten da, administrazio-kontratuen

esparruko hizkuntza-irizpideei dagokienez, Jaurlaritzaren Kontseiluak hizkuntza-klausula orokor eta bereziak onartuko dituela, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren proposamenez, Administrazio Orokorraren eta horren erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen kontratazio-pleguetan sartzeko.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen irizpena ikusita, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

#### ERABAKI DU

**“LEHENENGOA.-** Xedea eta aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomo eta zuzenbide pribatupeko ente publikoetako kontratazio-organoek nahitaez sartuko dituzte administrazio kontratuak karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-baldintzak, ondorengo ataletan jasotako edukiaren arabera.

**BIGARRENA.-** Berariazko klausula administratiboen pleguko karatulan jaso beharrekoak.

1. Administrazio-kontratuen berariazko klausula administratiboen pleguaren karatulan, azpiatal bat jarriko da kontratuak gure antolamendu juridikoan ezarritako hizkuntza-araubide juridiko ofiziala bete behar duela adierazteko. Hona hemen horren edukia:

../..

“Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu.”

2. Aholkularitza eta laguntza kontratuen eta zerbitzu kontratuen pleguen karatulan, kontratua xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratua hizkuntza ofizial edo ez ofizial jakin batzuetan gauzatu behar bada eta pleguan hori adierazi behar bada, aurreko testuari hauxe erantsiko zaio:

“...; ondokoa salbu, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean beste hizkuntza batean, edo beste hizkuntza batzuetan, soilik gauzatzeko eskatzen badute eta kontratuaren pleguan horrela jasota badago”.

**HIRUGARRENA.-** Berariazko klausula administratiboen pleguetako klausulak.

Berariazko klausula administratiboen pleguetan, hizkuntza-baldintza hauek sartuko dira, kontratu motaren arabera:

a) Obra-kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratu gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.”

b) Herri-lanen emakidetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratu gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”:

a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten

langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.”

c) Hornidura-kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera-eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”:

a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileak euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.”

.../...

d) Aholkularitza eta laguntza kontratuetan eta zerbitzu kontratuetan.

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu edo bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.

Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonak kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da „normalean euskara erabiltzea“: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileak euskaraz egingo dute, hasiera batean, kon-

traturua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontraturua gauzatzeko ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontraturua gauzatzeko ardurara duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.“

e) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan -osasu-itunak barne- eta zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin harremanetan jartzea eskatzen duten administrazio-kontratu berezietan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.

Kontraturua gauzatzeko ardurara duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontraturua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berriaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontraturua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontraturua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontraturua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontraturua gauzatzeko ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontraturua gauzatzeko ardurara duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.”

f) Kontratu mistoetan:

Kontratuaren xedearen araberrako klausulak sartuko dira, bateratzeak eskatzen dituen egoitzapenak eginda.

**LAUGARRENA.**- Kontraturua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskumena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatupeko ente publikoek egindako kontratuetan ezarritako hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko. Ebaluaketa kontratua gauzatzen ari den bitartean edo bukatutakoan egin ahal izango da.

Ebaluaketan, hizkuntzaren zuzentasuna eta komunikazioaren aldetik prestazioak izan duen kalitatea ere aztertu ahal izango dira.

Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere zereginak behar bezala burutzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango die kontratazio-organoei; halaber, kontsultatu ahal izango ditu Administrazio Orokorraren eta horren erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen kontratazioei buruz Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen datuak.



# Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak

## IV. PLANGINTZALDIA (2008-2012)

2008ko urtarrila



